

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

OIONGO UDALA

Eragindako gastuen kalte ordainak. Eginkizun publikoak betetzeko behar beste denbora

Bo190712H. Oiongo Udalbatzak honako hau erabaki du:

I. Aitortzea zinegotziek duten eskubidea kalte ordainak jasotzeko beren eginkizunak betetzean izaten dituzten gastuengatik (bidaia gastuak, joan-etorriak eta mantenua), betiere alkateak aurrez baimendu baditu, eraginkorrak badira, benetan egin badira eta agiri bidez justifikatuta badaude.

II. Arautzea zinegotziek duten eskubidea gastuengatik kalte ordainak jasotzeko, langile publikoek beren zerbitzuan egindako gastuengatik kalte ordaina jasotzeko eskubidea duten antzera, eta ordezeko gisa 16/1993 Dekretua aplikatzea, zerbitzuagatik kalte ordainei buruzkoa, bere aldaketekin (abenduaren 19ko 515/1995 Dekretua, abenduaren 19ko 267/2000 Dekretua eta ekainaren 13ko 121/2006 Dekretua). Salbuespen honekin: norberaren ibilgailua erabiltzeagatik kalte ordaina hau izango da: 0,33 euro km bakoitzeko.

III. Zinegotziak onuradun dituen istripuen aseguru polizari eustea.

IV. Oiongo zinegotzien eginkizun publikoak betetzeko behar beste denboratzat jotzen da kide anitzeko organoetara joateko eta horietan parte hartzeko erabilitakoa. Halakotzat jotzen da, baita ere, ordezkari lanetan, eskuordetutako eginkizunetan edo beste erakunde eta entitate batzuekin edo herritarren elkarteekin egindako bileretan edo haien karguari dagokion beste edozein lanetan erabilitako denbora, betiere, hala badagokio, aipatutako eskubideen inguruan lan legeriak eta funtzio publikoari buruzkoak xedatzen dutena betez. Denbora hori ez da izango hiruhileko bakoitzeko 90 (laurogeita hamar) ordu baino gutxiago.

V. Hiru hilean behin likidatu eta sortuko dira kalte ordainak. Kalte ordainen zenbatekoak interesdunak aukeratutako banku kontuan ordainduko dira. Aukeratutako banku kontu horretan, interesdunak titularretako bat izan behar du.

VI. Erabaki hau indarrean jartzea, hartu den egunaren hurrengotik aurrera, atzeraeraginik gabe eta korporazioaren agintaldi hau amaitzen den egunera arte.

VII. Aurreko ataletan adierazitako kontzeptuengatik ordaintzen diren zenbateko guztiei pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga atxikiko zaie.

VIII. Erabakia jendaurrean jartzea, iragarkia argitaratuta ALHAOn, Araban zabalkunderik handiena duten egunkarietako batean eta udalaren iragarki taulan.

IX. Eskatzea udaleko ordezkariak dituzten erakunde, entitate eta sozietate guztiei berariaz adierazteko ea aurreikusi duten pertsona horiei eskubide ekonomikoren bat edo kalte ordainen bat ematea bilkuretara joateagatik.

Oion, 2019ko uztailaren 27a

Alkatea

EDUARDO TERROBA